

KANALAK

Zer egingo duzue produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Gure bezeroek ez dute gurekin zuzenean kontaktuan jartzeko modurik izango, baina galderaren bat, produkturen batekin arazoren bat, erreklamazioren bat badute, web-gunean bertan proiektuan parte hartzen duten denda guztien zenbakiak eta email kontuak edukiko dituzte kontaktuan jartzea ahalbidetzeko eta ditzuzten arazoei konponbidea aurkitzeko.

Banaketa kanalei buruz hitz egiten badugu, esan dezakegu gure banaketa kanala ahalik eta azkarrena izango dela, bezeroek eskatutako produktuak ahalik eta denbora tarte txikienean euren etxeetan edukitzeko. Gainera, banaketa enpresa bat kontratatu beharrean banaketa lanetarako, gure proiektuarekin dendei laguntzeaz gain herritarrei ere lagunduko diegu. Hori egiteko, produktuen banaketa lanerako herritarrak kontratatuko ditugu eta eurak izango dira banatzaileak. Banatzaileentzako garraioa ere lortuko dugulakoan gaude, produktuak inguruko auzoetara ere helarazteko.

Salmenta kanala web-gunea izango da, bertan egongo baitira salgai eskuragarri dauden produktuak, eta bezeroek egin beharko duten bakarra bertara sartzea, behar duten produktua aukeratzea eta datuak betetzea izango da, produktuak euren etxeetara bidali ahal izateko.

Ordaintzeko bi modu egongo dira. Batetik web-gunean bertan erosketa egiterakoan ordaintzeko aukera edukiko dute, txartelarekin (visa, mastercard, kutxabank...). Bestetik produktua eurek eskatutako helbidera heltzean ordaintzeko aukera edukiko dute.

